



PARROKIKO KANPAI JOTZE KONTZERTU BEREZIA EGONGO DA OSTIRALEAN



Kontzertua Parrokia barnetik eta hiriko toki guztietatik entzun ahal izango da

Ostiral honetan, San Inazio egunez, oso kontzertu berezia antolatu da Hondarribian. Parrokiko Kanpai jotze Kontzertua, arratsaldeko 20:00etan hasiko dena, eta Parrokian bertan entzuteaz gain, hiri osoan entzun eta gozatu ahal izango dena. Parrokiaren barnean, Koldo Ortega historialari eta Fundazioaren lagunak azalpen historikoak emango ditu.

ARMA PLAZA Fundazioak eta Hondarribiko Kanpajoleek antolatuta, Jasokunde eta Sagarrondoko Andre Mariaren Parrokiak eta Hondarribiko Udaletxearen laguntzarekin.

Kalixa Silanes Kultur zinegotzia eta ARMA PLAZA Fundazioko presidente-ordeak dioenez, "kontzertu berezi honekin kanpaien konponketan lagundu duten pertsona eta entitate guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Gogoratu behar da 2013ko udan mikromezenazgo edo 'crowdfunding' kanpaina bat abian jarri genuela eta lortutako kopuruari esker Parrokiko kanpaiak birgaitu egin direla azken hileotan".

"Eskerrak eman nahi nizkieke era batera edo bestera lagundu duten guztiei. ARMA PLAZAri, Parrokiari, diruz lagundu dutenei, eta batez ere, kanpajoleei, Jose Luis Arbelaiz, Jose Ramon Iridoy, Iñaki Gonzalez, Juan Jose Jarilla eta Aitor Lekuonari.

Informazio gehiagorako: <http://www.hondarribia.eus/noticia.asp?id=2486&idioma=eu>



CONCIERTO DE TOQUE DE CAMPANAS DE LA PARROQUIA EL VIERNES



Se podrá escuchar el concierto desde el interior de la Parroquia y desde cualquier punto de la Ciudad

Este viernes, festividad de San Ignacio, habrá un concierto muy especial en Hondarribia. Un concierto de toque de campanas de la Parroquia, que se podrá escuchar desde todos los puntos de la Ciudad, así como desde el interior de la Parroquia, donde el historiador y colaborador de ARMA PLAZA Fundazioa Koldo Ortega realizará una explicación histórica de todos los toques de campanas.

El novedoso concierto está organizado por los campaneros de la Parroquia y ARMA PLAZA Fundazioa, con la colaboración de la Parroquia de Nuestra Señora de la Asunción y del Manzano y del Ayuntamiento de Hondarribia.

El Concejal de Cultura y vicepresidente de la Fundación Kalixa Silanes destaca que “con este novedoso concierto queremos agradecer a todos los que de alguna manera u otra han colaborado para que las campanas de la Parroquia hayan sido rehabilitadas. Hay que recordar que en el verano del 2013 se puso en marcha una campaña de micromecenazgo o ‘crowdfunding’ con el objetivo de conseguir fondos para llevar a cabo el proyecto, que se ha venido realizando por fases”.

“Me gustaría transmitir mi más sincero agradecimiento a la Fundación ARMA PLAZA, a la Parroquia, a todos los que han colaborado económicamente y cómo no, a los campaneros José Luis Arbelaiz, José Ramón Iridoy, Iñaki Gonzalez, Juan José Jarilla eta Aitor Lekuona”.

Más información: <http://www.hondarribia.eus/noticia.asp?id=2486&idioma=es>